



Trebakuntza 2010/02: ZENBAKIEN ETA NEURRIEN DEKLINAZIOA

Zalantza handiak izaten ditugu sarritan zenbakiak eta neurriak deklinatzerakoan: *bi eguneko dolua* ala *bi egunetako dolua*...

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

- 1 * Langile guztiek urtean **lau astetako** oporrak hartzeko eskubidea daukate.
2. * Zerbitzuaren kalte-ordainak partidari **3.000 eurotako** aurrekontua daukagu.
3. * Udaletxean hamar bulego badauzkagu ere, hara joan naiz eta **hiru bulegoko** zuzendariak baino ez ditut ikusi.
4. * Udaletxean hamar bulego dauzkagu, eta gaur joan naizenean **hamar bulegotako** zuzendariak ikusi ditut.
5. * Nork onartu ote du **400 eurotako** fotokopiagailua erostea horrenbesteko zuzkidurarik ez daukagunean?
6. * Nire etxetik lantokira **15 kilometrotako** bidea dago.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Izan ditzakegun zalantzei irtenbidea emateko, hona hemen Euskaltzaindiaren araua:

*“Oinarrian zenbatzaileren bat ageri denean eta adina, prezioa, neurria, pisua, adierazten duten izenlagunak osatzen direnean ere, **-ko** da hobesten dena. Idatz bedi, hortaz, bi urteko umea, bost liberako egunkaria, hiru kilometroko bidea, hamar metroko garaiera, hiru asteko egonaldia, e.a.”.*

Arau hau, ageri denez, nongo kasurako soilik dago emanda eta determinatzailetzat zenbatzaile zehazturen bat (zenbakia) dauka.

Beste kontu bat dira 3. eta 4. adibideak: batean *hamarretik hiru bulegotakoak (hamar bulego daude guztira eta hirutakoak ikusi ditu)* baino ez ditu ikusi; eta bestean, *hamar bulegoetakoak (bulego guztietakoak)* ikusi ditu.

1. Ad. **Langile guztiek urtean lau asteko** oporrak hartzeko eskubidea daukate.
2. Ad. **Zerbitzuaren kalte-ordainak partidari 3.000 euroko** aurrekontua daukagu.
3. Ad. **Udaletxean hamar bulego badauzkagu ere, hara joan naiz eta hiru bulegotako zuzendariak baino ez ditut ikusi.**
4. Ad. **Udaletxean hamar bulego dauzkagu, eta gaur joan naizenean hamar bulegoetako zuzendariak ikusi ditut.**
5. Ad. **Nork onartu ote du 400 euroko** fotokopiagailua erostea horrenbesteko zuzkidurarik ez daukagunean?
6. Ad. **Nire etxetik lantokira 15 kilometroko** bidea dago.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariekkin:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org